

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA EGUNKARIAREN IXTEAREN GAINEAN

Euskaltzaindiak, Hernanin bildurik, *Euskaldunon Egunkariaren* ixtea aztertu du, besteak beste, eta honako adierazpen hau aho batez onartu:

Euskaldunok euskaraz dugun egunkari bakarra epaile-aginduz itxi izanak eta horren inguruan atxiloturiko pertsonak aspaldidanik euskara eta euskal kulturaren alde lan handia egindakoak izateak, horietako bat, Joan Mari Torreal-dai euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz bete du Euskaltzaindia, eta gertakari hauengatik bere kezka larria adierazi nahi du. Orobat, Martin Ugalde jaun euskaltzain ohorezkoraren egoeratik.

Euskaltzaindiak, beti egin duen bezala, oraingoan ere argi utzi nahi du euskara eta euskal kultura gure gizarte osoaren ondareak direla, inolako ideologia bereizketarik gabe. Horren ondorioz, Erakunde honek, Zuzenbideko Estatua-ren egoera aintzat hartuta, ezin onartuzkotzat jotzen du, gertakari hauen aitzakiaz, zenbaitzuen gure hizkuntza eta kultura terrorismoarekin elkartzeko darabilten bidegabeko interesa.

Adierazpen honen ale bana helaraziko zaie berehala agintariei, bai eta komunikabide guztiei ere, jendarteaz ezaguna izan dadin.

Hernanin, 2003ko otsailaren 28an